

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

288/2025 Foru Agindua, irailaren 5ekoa, Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren (Lukuko D.8-01 azpizona) zazpigarren aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena

Erreferentziako aldaketa puntualaren izapideak ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozeduraren mende daude. Prozedura hori Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen eta lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren bidez arautzen da.

Prozedura horren barruan, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzu honek Arratzua-Ubarrundiako Udalaren aldetik, "Arratzua-Ubarrundiako HAPOren zazpigarren aldaketa puntualari" buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araututako gutxieneko edukiaren arabera; baita plangintza aldaketaren zirriborroa ere.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, arestian aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, 2024ko otsailaren 24an eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari ekin zion, eta hilabeteko epea ezarri zuen horretarako (21/2013 Legearen 30. artikulua eta 10/2021 Legearen 75. artikulua).

Konsulten aldia amaitutakoan, txosten hau egin du Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Arabako Foru Aldundiko Natura Ingurunearen Zuzendaritzak hala eskatuta.

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena eta ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena.

Lukuko Administrazio Batzarra Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoan kokatutako lokal baten jabe izango da baldintza guztietan. Lokal hori, indarrean dagoen hirigintza plangintzaren arabera, izaera erlijiosoko komunitate ekipamendu pribatu gisa kalifikatuta dago. Esleitutako erabilera hori ez da ez parekatutzat ez bateragarritzat jotzen administrazio batzarren behar funtzional eta administratiboekin, eta, beraz, beharrezkotzat jotzen da plangintza hori eguneratzea eta egokitzea.

Beraz, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren 7. aldaketa puntualaren xedea da Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoko erabileren bateragarritasuna egokitzea, Lukuko Administrazio Batzarraren berezko gizarte, kultura eta erakunde zentro gisako jarduerekin lotutako erabilerak ezarri ahal izateko. Erabilera horiek, gaur egun, bateraezinak dira erlijio ekipamendua soilik baimentzen duen indarreko erabilera araubidearekin. Zehazki, helburua da "LU.01 antolamendu xehatuko eremuko" d.8-01 azpizonako "erai-kuntza, jabari eta erabilera baldintzetan" sartzea kultura eta jolas ekipamenduekin eta zerbitzu publikoekin bateragarriak diren erabilerak.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Jarduketa eremua 2 poligonoko 47 katastro lurzatira mugatzen da (Ibaitartegi kalea 19, Luku, Arratzua-Ubarrundia). Lukuko herriaren iparraldean dago, eta honako muga hauek ditu: iparraldean, hilerria; ekialdean, bolatokia eta Ibaitartegi kalea (A-4016 errepidea); hegoaldean, plaza publiko gisa erabiltzen den lurzati bereko lursaila; eta mendebaldean, sartzeko bide publikoa.

Jarduketak Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoa hartzen duen eraikinari eragiten dio. Eraikin horrek 643 m² inguruko azalera eraikia du guztira. Beheko solairuak ataripea, goiko solairurako eta kanpandorrerako sarbidea eta eliza bera daude. Goiko solairuan parrokia lokala izeneko lokal bat dago (100 m² inguruko azalera eraikia), apaizetxe zaharrari dagokiona, eta, azkenik, kanpandorrerako sartzeko solairuak. Eraikina interes historiko eta arkitektonikoko higiezinaren udal katalogoan jasota dago, ondasun inbentariatu gisa (12. fitxa). Ikus babes maila ertainarekin deklaratzeko proposatutako kultura-ondasuna. Era berean, kokapena ustezko zona arkeologiko gisa kalifikatuta dago (Ebazpena, 1997ko maiatzaren 26koa, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordearena, Arratzua-Ubarrundiako (Araba) ustezko arkeologia zonak zehaztu dituen (EHAA, 130. zk., 1997ko uztailaren 9koa).

Hirigintza ondorioetarako, Lukuko udalerriko hiri lurzoruko LU.01 antolamendu xehatuko eremuko D.8-01 zona eta D.8-01 azpizona dira.

1.3. Aztertutako aukerak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaltzen denez, hiru aukera hartu dira kontuan. Hona hemen, laburbilduta:

0 aukera (ez da hautatu):

Gaur egungo egoerari eusten zaio. Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoa osatzen duen eraikina P-4 planoan ("zonakatze xehatua") erlijio ekipamendu pribatuari (d.8) esleitutako erabilera soilik bideratzen da, eta ez die erantzuten Lukuko Administrazio Batzarraren beharrei.

1. aukera (ez da hautatu):

Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoa osatzen duen eraikinaren kalifikazio orokor eta xehatuaren aldaketa barne hartzen du. Alde batetik, erlijio jarduerak okupatutako eremuak bereizten dira, erlijio ekipamendu pribatuaren kalifikazioarekin mantentzen direnak (D.8 eta d.8), hori baita eraikinaren berezko erabilera eta nagusia; eta, bestetik, erantsitako parrokia lokala izeneko eremua (apaizetxe zaharra), administrazio batzarrak okupatzen duena, ekipamendu pribatu generikoaren kalifikazio berri batekin sartuko dena (D.0 eta d.0). Lurzoru eta eraikuntza bolumen berari bi hirigintza kalifikazio desberdin aplikatzeko ezintasuna justifikatzen da.

2. aukera (aukeratutakoa):

Barne hartzen du "LU.01 antolamendu xehatuko eremuko" d.8-01 azpizonako "eraikuntza, jabari eta erabilera baldintzetan" sartzeko kultura eta jolas ekipamenduekin eta zerbitzu publikoekin bateragarriak diren erabilerak. Zehazki, araudi partikularreko 2.1.1.14 artikuluko "2. Antolamendu/Kalifikazio xehatua" apartatuko "2.1. Eraikuntza, jabari eta erabilera baldintzak" puntuan sartzen da zehaztapen hau: D.8-01 azpizonarako, 1.5.2.16 eta 1.5.2.17 artikuluetan oro har ezarritako zehaztapenak aplikatuko dira, berezitasun hauekin: Kultura eta jolas ekipamenduen eta zerbitzu publikoen erabilera bateragarriak baimentzen dira, gauzatutako eraikigarritasun osoaren ehu-neko 30eko gehieneko eraikigarritasunarekin.

Jarduketak Lukuko biztanleentzat duen interesa justifikatzen da, herriko administrazio batzarraren eskaerei erantzuten baitaie.

2. Kontsulta aldiaren laburpena

2024ko otsailaren 24n hasi zen eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsultak egiteko fasea, araututako prozeduraren arabera. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
URA – Uraren Euskal Agentzia	√
EEE – Energiaren Euskal Erakundea	
Ihobe – Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arratzua-Ubarrundiako Udala	
Gorbeialdeko Kuadrilla	
Lukuko Administrazio Batzarra	
Gasteizko Gotzaindegia	
Arabako Kontzejuen Elkarte – AKE	
Arabako Natur Institutua	
Eguzki talde ekologista	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN – Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkarte	
Gaia elkarte	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Aranzadi Natura Zientzien Elkarte	
SEO BirdLife – Espainiako Ornitologia Elkarte	
UAGA – Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 25-09 espedientean eta www.araba.eus webgunean):

– URA – Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman, eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri diola, egokitzen joz gero gaiari buruzko txostena egin dezan, bat etorritik Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin.

Bigarren txostenean, jarduketa eremuaren, xedearen eta proposatutako alternatiben deskribapen laburra egiten du. Ondoren, uren arloko zenbait gogoeta jasotzen ditu, Santa Engrazia ibaiaren zaintza eremutik kanpo kokatzeari buruz, uholde arriskurik ez izateari buruz eta Ebroko Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroan sartutako guneetatik hurbil ez egoteari buruz. Baliabide hidrikoen eskuragarritasunari dagokionez, jakinarazi du ezen, Uraren Legearen testu bateginaren 25.4 artikulua arabera, arroko erakunde eskudunak, hala badagokio, nahitaez erabaki beharko duela ea baliabide nahikorik dagoen ala ez aldaketarekin lotuta egon daitezkeen eskaerei erantzuteko. Azkenik, ondorioztatzen du Uraren Euskal Agentziak, bere eskumeneko arloen barruan, ez duela kontuan hartu beharreko gogoetarik egiten.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Euskal Kultura Ondarearen Zentroak egindako txostenaren berri eman du. Txosten horretan, aldaketa puntuala laburbildu ondoren, adierazi du jarduketak Lukuko San Martin Apezpikuaren parrokia multzoa hartzen duen eraikinari eragiten diola. San Martin elizak eta erantsitako parrokia lokalak osatzen dute multzo hori, eta 100 m² inguruko azalera eraikia du. Ondorio gisa, honako hau jaso beharko litzatekeela dio:

- Euskal Kultura Ondarearen Kontseiluak ezarritako irizpideen arabera, babes ertaineko kultura ondasun gisa babesteko proposatutako ondasunari dagokienez, San Martin eliza (9. fitxa), gomendatzen da egiten diren esku hartzeek Zaharberritze Kontserbatzailea izeneko esku hartze kategoria hartzea erreferentzia gisa, Ondare Urbanizatu eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan jasotako “Birgaitzeko esku hartzeak” izeneko I. eranskinean definitzen den bezala.

- Euskal Kultura Ondarearen Kontseiluak ezarritako irizpideen arabera, Lukuko bola jokorako (80. fitxa), toki/udal mailan babesteko proposatu dena, gomendatzen da egiten diren esku hartzeek erreferentziatutako hartzea Finkatzea eta/edo Kontserbatzea eta Apaintzea izeneko esku hartze kategoriak, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuan jasotako “Birgaitzeko esku-hartzeak” izeneko I. eranskinean definitzen diren bezala.

- Era berean, San Martin elizaren ustezko zona arkeologikoa 1997ko maiatzaren 26ko ebazpenaren bidez izendatu zen. Ebazpen horren bidez, Arratzua-Ubarrundiako ustezko zona arkeologikoen izendapena egin zen (EHAA, 130. zk., 1997ko uztailaren 9koa). Adierazpenean adierazitakoaren arabera, ustezko zona horien lurpeari eragin diezaiokeen edozein obra proiekturen aurretik azterketa arkeologikoa egin beharko da, eta azterketa hori Arabako Foru Aldundian arkeologiaren arloan eskumena duen organoari aurkeztu beharko zaio.

Beraz, adierazten da proiektua garatzeko egiten den jarduketa orok Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikuluan xedatutakoa bete beharko duela.

— Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi duenez, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eraikin babestuen erabilera aldaketak onartzen ditu, betiere ondasunaren balio babestuei eragiten ez badiete eta kontserbazio baldintza hobeak eta haien balioa nabarmentzea badakarte. Hori kontuan hartuta, ez dago eragozpenik proposatutako aldaketa izapidetzeko.

— Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamenduko plan orokorraren 7. aldaketa puntualak ez duela eragin arkeologikorik. Adierazten du, nolana ere, zona arkeologikoen mugaketaren barruan egingo den lur mugimendu orok Arabako Foru Aldundiko Kultura Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren txostena jaso beharko duela aldez aurretik, bai eta edozein obra gauzatzean aurkikuntza arkeologikorik egiten bada ere (Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 33. eta 65. artikulua). Gainera, hiri antolamenduko plan bereziaren aldaketa oro berehala jakinarazi beharko zaio Kultura eta Kirol Sailari.

— Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak jakinarazi du Arratzua-Ubarrundiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 7. aldaketa puntualak ez duela eraginik nekazaritzaren eskumenean.

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

“Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamenduko plan orokorraren 7. Aldaketa Puntualaren” eremua Lukuko hiri lurzoruan dago, eta ez dagokio naturagune babestu bati, ez eta katalogatutako fauna espezieen interes bereziko eremu bati ere. Onura publikoko mendiei, igarobide ekologikoei eta katalogatutako paisaiei ere ez lieke eragingo. Aipatzekoa da jarduketaren xede den eraikina, San Martin eliza, babes ertaineko kultura ondasun gisa babesteko proposatutako ondasuna dela, eta kokalekuak ustezko zona arkeologiko bat barne hartzen duela.

Sustatzaileak emandako dokumentazioan bertan, eta, zehazki, ingurumen agiri estrategikoan adierazi den bezala, hiri antolamenduko plan orokorraren aldaketaren izaera kontuan hartuta, ez da espero ingurumenean eragin nabarmenik izatea, baina bada aurreikustekoa nolabaiteko eragina izatea eremuan dauden ingurumen faktore batzuetan, eta horrek ekarriko luke ingurumen integrazioko neurriak ezartzea.

Alde batetik, aldaketaren xede den eraikinean kultura eta aisialdi ekipamenduen eta zerbitzu publikoen erabilera bateragarriak izatea ahalbidetzeak aukera emango du Lukuko Administrazio Batzarraren behar funtzional eta administratiboei erantzuteko, eta horrek eragin positiboa izango du tokiko herritarrei zerbitzuak ematean. Bestetik, erabilera berri horiek baimentzearen ondorioz, eraikinean obrak egin litezke, kultura ondareari kalteak eraginez eraikin babestu gisa katalogatuta dagoelako eta ustezko zona arkeologiko batean kokatuta dagoelako, bai eta horrelako eraikinak babesleku gisa erabiltzen dituzten fauna-talde jakin batzuei ere kalteak eraginez (batez ere kiropteroen eta gaueko harraparien hainbat espezieri). Era berean, kontuan hartu behar dira eraikuntza prozesuaren eraginak, hala nola baliabideen kontsumoa (materialak eta energia) eta eraikuntzako hondakinen sorrera. Eragin horiek aldi baterakoak izango dira eta obrak amaitu bezain laster desagertuko dira, baina beharrezkoa izango da obrak gauzatzeko jardunbide operatibo egokiak hartzea eta, kasua bada, prebentzio eta babes neurri egokiak.

Hori dela eta, eraikina birgaitzeko obrak eta Arratzua-Ubarrundiako HAPOn aldaketa puntual hau onartzearen ondorioz gauza daitezkeen baimendutako erabilera berrien ondorioz egin daitezkeen obrak higiezinaren kultura eta ondare balio babestuak arriskuan ez jartzeko moduan egin beharko dira, eta faunari ez eragiteko prebentzio neurri egokiak hartuko dira. Gainera, obren ondorioz sortzen diren hondakinak era desegokian kudeatzeak ekar litezkeen ondorio kaltegarriak zeharo saihestu beharko lirateke. Azkenik, ustezko zona arkeologikoan eragina izan dezakeen edozein jarduketa egiteko, dagozkion prebentzio neurriak ezarri beharko dira, kultura ondarearen arloko araudi sektoriala betez.

4. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoak “II.12 Ingurumenean eragin kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta zuzentzeko neurriak” apartatuan, aldaketa puntualaren ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu eta zuzentzeari buruz egokitzen jotzen diren hainbat neurri jasotzen ditu. Neurri horiek proiektua planifikatzeko eta idazteko fasean eta ondorengo eraikuntza fasean ezarri beharreko irtenbideei eta ekintzei buruzkoak dira. Ingurumen integrazioko neurri horien osagarri, “Arratzua-Ubarrundiako HAPOn 7. aldaketa puntualaren” hirigintza dokumentuak honako hauek hartu beharko ditu kontuan, berariazko araudian sartzeko:

A) Eraikinean programatzen den edozein esku hartze hasi aurretik, teknikari kualifikatuek faunaren prospekzioa egin beharko dute alde aurretik. Kiropteroak eta gaueko harrapariak (egagropiloak edo bestelako aztarnak ikusiz gero, bertan direla egiaztatzea gauez entzun zaie-lako, etab.) hautematen badira, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari jakinaraziko zaio, eraginik ez izateko neurriak egokienak har ditzan (obren kronograma egokitzea, ordeko babeslekuak instalatzea, jarduketa protokolo espezifikoak hartzea, etab.).

B) Ebaluazio honen xede den Arratzua-Ubarrundiako HAPOren aldaketa puntuala garatzeko jardueren ondorioz egin litezkeen konponketa, mantentze eta eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, tanga iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaia biltegitratzeko, eta debekatuta egongo da dagoeneko erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio halakoak. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: sortu daitezkeen hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakindegia edo zabortege baimendura eraman beharko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispén lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispén-etako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

C) Kontuan hartu beharko dira foru eta autonomia organoek kultura ondarearen arloan egingako zehaztapenak, eta, zehazki, ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura honen kontsulta fasean emandako txostenetan jasotako estipulazioak, bai Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzarenak, bai Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuarenak, Arratzua-Ubarrundiako HAPOren aldaketa puntualarekin lotutako arkitektura eta arkeologia arloko zehaztapenei dagokienez.

Azaldutako guztian oinarrituta, Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatu gisa eman zaizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren (Lukuko D.8-01 azpizona) zazpigarren aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea izango da, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.1 artikuluen arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, argitaratu osteko lau urteko epean aldaketa hartzen edo onesten ez bada. Ez da beharrezkoa izango ingurumen organoak esanbidezko ebazpenik ematea ingurumen txosten estrategikoak indarra galdu duela adierazteko. Kasu horietan, sustatzaileak berriro hasi beharko du aldagakaren ingurumen ebaluazioaren izapidea, salbu eta indarraldia luzatzeko eskatzen badio ingurumen organoari eta organo horrek baimena ematen badu. Hori guztia, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 75.5 eta 75.6 artikuluen arabera.

Laugarrena. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 5a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA